



NAFARROAKO  
**Aldizkari Ofiziala**

2020. urtea

62. zenbakia

**BEREZIA**

**Astelehena, martxoaren 23a**

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

**1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA**

**1.1. XEDAPEN OROKORRAK**

**1.1.3. Foru Aginduak**

- 5/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 21ekoa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez arduradunak izendatzen diren Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistema publikoan eta pribatuan, COVID-19 izeneko eritasunarekin loturik. 3898
- 6/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 21ekoa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko zenbait enpresari obligazioak ezartzen baitzaizkie, osasun- eta laguntza-sistemaren beharrek zerikusia dutenak, osasun krisiaren agertokian bere egitekoak gauzatzeko beharrezkoa den materiala eskura izan dezan. 3898

# 1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

## 1.1. XEDAPEN OROKORRAK

### 1.1.3. Foru Aginduak

**5/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 21ekoa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez arduradunak izendatzen diren Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistema publikoan eta pribatuan, COVID-19 izeneko eritasunarekin loturik.**

COVID-19 izeneko gaixotasuna dela eta, Osasunaren Mundu Erakundeak osasun publikoko larrialdi egoera deklaratu du, eta nazioarteko garrantzia eman dio. Gaur den egunean, ez dago txertoen bidezko tratamendu espezifikorik gaixotasun honetarako. Beraz, har daitezkeen neurriak hauek dira: infekzio iturria bakartzea eta mugak jartzea kutsapena errazten duten transmisio mekanismoak.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak 26.1 artikuluan aurreikusten duenez, osasunerako berehalako arrisku ohiz kanpoko bat badago, edo susmatzen bada badagoela, osasun arloko agintariak egokitzat jotzen dituzten prebentzio neurriak hartuko dituzte, hala nola produktuak konfiskatu edo immobilizatzea, jarduerak bertan behera uztea, enpresak edo haien instalazioak ixtea, bitarteko materialen eta giza baliabideen interbentzioa, bai eta osasunaren ikuspuntutik justifikatuzat jotzen diren beste guztiak ere.

Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Legeak, berriz, 54.1 artikuluan ezartzen duenez, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoan aurreikusitako neurriak ezertan ukatu gabe, salbuespenez eta aparteko larritasunak edo presak agindutako egoeretan, Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoetakoek eta Ceuta eta Melilla hirietakoek beharrezkoak diren neurri guztiak hartzen ahalko dituzte, zeinek bere eskumenen esparruan, legea betetzen dela ziurtatzeko.

Osasunaren Mundu Erakundeak osasun publikoko larrialdia deklaratu duenetik, Nafarroan COVID-19ren ondoriozko krisia kudeatzeko neurriak hartu dira, Osasunari buruzko apirilaren 23ko 10/1990 Foru Legeak osasun arloan emandako agintaritza erabiliz.

COVID-19k eragindako krisi larriak osasun sistema izan ditzakeen ondorioak gutxitzeko neurri gehiago hartzeko xedez, bidezkoa da pauso bat gehiago ematea osasun sare publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan. Orain arte lankidetzari hori egon bada ere, lankidetzari operatiboaz gain lankidetzari exekutiboaz lortu nahi da orain, kontuan harturik orain arte lankidetzari ezin hobea izan dela Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistema publikoaren eta pribatuaren artean, COVID-19ren ondoriozko krisia kudeatzeko sare integratua den aldetik.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da Nafarroako osasun sistema publiko eta pribatuaren sareko kontingentzia plan osoaren arduraduna izendatzea, Osasun Zuzendaritza Nagusiaren proposamenari jarraikiz, baita Nafarroako Foru Komunitateko ospitale publiko eta pribatu guztietako Zainketa Intentsiboetako Unitate (ZIU) guztien arduraduna ere, COVID-19ri dagokion guztian osasun sistema modu eraginkorrean kudeatzeko.

Osasunari buruzko apirilaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 2.2 artikuluari jarraikiz,

#### AGINTZEN DUT:

Lehenbizikoa.—Alfredo Martínez Larrea jauna izendatzea Nafarroako osasun sistema publiko eta pribatuaren sareko ospitaleetarako kontingentzia plan osoaren koordinatzaile exekutibo, COVID-19 izeneko eritasunarekin loturik; izendapenak 2020ko martxoaren 21etik aurrera izanen ditu ondorioak. Izendatuak Osasun Zuzendaritza Nagusiari kontu eman beharko dio gai honetaz.

Bigarrena.—Juan Pedro Tirapu León jauna izendatzea Nafarroako ospitale publiko eta pribatu guztietako Zainketa Intentsiboetako Unitate (ZIU) guztien koordinatzaile exekutibo; izendapenak 2020ko martxoaren 21etik aurrera izanen ditu ondorioak. Izendatuak foru agindu honen 1. puntuan adierazitako koordinatzaile exekutiboari kontu eman beharko dio gai honetaz.

Hirugarrena.—Foru agindu hau jakinaraztea Alfredo Martínez Larrea jaunari eta Juan Pedro Tirapu León jaunari, eta igortzea osasun zentro publiko eta pribatu guztietako kudeatzailetzara eta zuzendaritza medikoetara, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileari, Osasuneko Zuzendaritza Nagusira eta Osasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira.

Laugarrena.—Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 21ean.—Osasuneko kontseilaria, Santos Induráin Orduna.

**6/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 21ekoa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko zenbait enpresari obligazioak ezartzen baitzaizkie, osasun- eta laguntza-sistemaren beharrek zerkusua dutenak, osasun krisiaren agertokiaren bere egitekoak gauzatzeko beharrezkoa den materiala eskura izan dezan.**

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak 26.1 artikuluan ezartzen duenez, osasunerako berehalako arrisku ohiz kanpoko bat badago, edo susmatzen bada badagoela, osasun arloko agintariak egokitzat jotzen dituzten prebentzio neurriak hartuko dituzte, hala nola produktuak konfiskatu edo immobilizatzea, jarduerak bertan behera uztea, bitarteko materialen eta giza baliabideen interbentzioa, bai eta osasunaren ikuspuntutik justifikatuzat jotzen diren beste guztiak ere.

Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Legeak, berriz, 54.1 artikuluan ezartzen duenez, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoan aurreikusitako neurriak ezertan ukatu gabe, salbuespenez eta aparteko larritasunak edo presak aginduta behar denean, Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia erkidegoetakoek beharrezkoak diren neurri guztiak hartzen ahalko dituzte, zeinek bere eskumenen esparruan, legea betetzen dela ziurtatzeko. Horrez gain, 2. artikuluan ezartzen du, zehazki, agintaritza eskudunak neurri batzuk hartzen ahalko dituela ebazpen arazoituaren bidez, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean aurreikusitako ukatu gabe; neurri horien artean aipatzen du bitarteko materialen edo giza baliabideen interbentzioa (b letra) eta jarduerak bertan behera uztea (d letra).

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiaren izaera eman zion COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun publikoko larrialdiari, gaitza nazioartean zabaltzeak herrialde guztietako osasun publikorako arriskua dakarrelako eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen duelako. Testuinguru horretan, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratu zen COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko.

463/2020 Errege Dekretu horrek 4. artikuluan ezartzen duenez, alarma egoeraren ondorioetarako eskumena duen agintaritza Gobernua izanen da, bai eta, zein bere ardura eremuan, ministerio hauetako titularrak ere: Osasuna, Defentsa, Barne Arazoak, Garraioak, Mugikortasuna eta Agenda Urbanoa. Hala eta guztiz ere, errege dekretu horren 6. artikuluekin bat, administrazio bakoitzak eskumenak ditu, indarreko legeriak ere zerbitzuen ohiko kudeaketarako emandakoak, beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, betiere kasuan kasuko agintaritzaren zuzeneko aginduen esparruan.

COVID-19k eragindako osasun krisiaren aurrean, gaitzari eusteko eta Osasun Ministerioari informazioa igortzeko xedapenak eta neurriak hartzeari buruzko martxoaren 15eko SND/234/2020 Aginduak ezartzen du COVID-19 koronabirusari eusteko xedapenak eta neurri guztiak, autonomia erkidegoen eskumen-esparrukoak izan eta agindu horren laugarren apartatuan ageri direnak, Osasuneko ministroak hartuko dituela, eskuordetzan ari den agintari eskudun moduan jarduten duen kasuetan. Xedapenak eta neurri horiek ofizioz edo agintari autonomiko eskudunen eskaera arrazoituz hartuko dira.

Une honetan, Nafarroako eta gainerako autonomia erkidegoetako egoera kritikoa da, martxoaren 15eko 233/2020 Ministro-aginduen eragingarritan aipatzen den materiala —babeserako maskarak eta NBEtarako gainerako material sanitarioa— eskas baita, nazioartean pandemiak garraioan eta merkatuaren egoeran eragin dituen ondorioengatik ez baitira egindako eskaerak denboraz iristen ari Foru Komunitatera. Izan ere, hornitzeak zailtasunak sortzen ari dira eta horrek eragin diezaioke osasun eta laguntza arloetako profesionalen beharrezko babesari, horietatik baitira pandemiari aurre egiten ari diren lehentasunezko kolektiboak, eta egoera horrek, ondorioz, eragin baitiezaiokie, halaber, osasun eta laguntza arloetan eman beharreko prestazioari, babestu beharrekoari.

Martxoaren 15eko SND/234/2020 Agindu horretan adierazi den araber, Osasun Departamentuak Osasun Ministerioari adierazi dio osasun eta laguntza arloetako sistemen eskura jarri behar dela Foru Komunitateko enpresa pribatuetan legokeen materiala, hots, II eta IIR motako babeserako maskara kirurgikoak, FFP2 motako babes-maskarak eta FFP3 motako babes-maskarak.

Martxoaren 15eko SND/233/2020 Aginduak zenbait informazio-betebehar ezartzen ditu, COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera. Hartara, zehazten du lurralde nazionalen kokatutako pertsona juridikoen betebeharra dela, nazionalak zein atzerri-tarrak izan, baldin eta jarduera gisa agindu horren hirugarren apartatuan jasotako produkturen bat fabrikatzea edo/eta inportatzea badute, bai eta

aurreikusitako produktu horietako bat garatzeko gaitasuna duten pertsona juridikoen betebeharrak ere, produktu horiei buruzko informazioa osasun-agintariari ematea; horrekin batera ezartzen dute osasun publikoaren arloko arau-haustetzat joko dela eskatutako informazioa ez aurkeztea eta informazio hori faltsutzea, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorraren VI. tituluan ezarritakoari jarraikiz.

Osasun Ministerioak departamentu honi eskatu dio beharrezko jarduketak egin ditzan Nafarroan Osasuneko eta Gizarte Laguntzako Sistema Nazionalaren eskura uzteko bere zerbitzuak emateko beharrezkoa den materiala.

Bestalde, Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen martxoaren 18ko 1/2020 Foru Lege-dekretuak ezartzen ditu, bestelako neurri berezien artean, 15. artikuluan ageri direnak, hots, kontratazio publikoaren eta mandatuaren arlokoak.

Horiek horrela, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 2.2 artikulua araberak, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria osasun arloko agintaria denez, besteak beste,

#### AGINTZEN DUT:

Lehenbizikoa.—Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako pertsona juridikoen betebeharrak da, nazionalak zein atzerritarak izan, baldin eta jarduera gisa badute II eta IIR motako babeserako maskara kirurgikoak, FFP2 motako babes-maskarak eta FFP3 motako babes-maskarak eta Osasun Ministerioak martxoaren 15ean emandako SND/233/2020 Aginduan aipatutako edozein osasun-material eta -produktu (salbu eta nitrilo eskularruak, hautsarekin edo gabe; soluzio hidroalkoholikoa, biozida eta kosmetikoa; eta haren lehengaiak eta osasun-alkoholak) fabrikatzea eta/edo, inportatzea, eta/edo merkaturatzea eta izatea, bai eta aurreikusitako produkturen bat garatzeko gaitasuna izatea ere, Nafarroako Gobernuak

Osasun Departamentuari adieraztea, ahalik eta eperik laburrenean eta, betiere, foru agindu hau argitaratu eta gehienez ere hiru egun naturaleko epean, stockean produktu horietako zenbat dituzten, zein motatakoak diren, horiek erosi edo/eta produzitzeko kostua eta, orobat, haiek merkaturatzean zer industria-mozkin aurreikusi duten. Horren guztiaren berri eman beharko da 848 42 10 55 telefonora deituz edo Covid19GE@navarra.es helbidera idatziz.

Bigarrena.—Foru agindu honen lehen paragrafoan aipatzen diren pertsonak beharturik daude produktu horiek ez merkaturatzera, ezta inolaz ere eskualdatzera ere. Bai, ordea, haiek gordetzera eta zaintzera beren instalazioetan eta, orobat, Osasun Departamentuaren eskuetan jartzera Estatuaren Segurtasuneko Indar eta Kidegoek edo Foruzaingoak eskatuz gero.

Hirugarrena.—Foru agindu honetan ezarritako xedapenak ez zaizkie aplikatuko farmazia establezimenduei, horiek berariazko araudia edukiko dute-eta.

Laugarrena.—Kolektibo hartzaileen osasuna babesteko zehazten dira neurri hauek, eta proportzionaltasunez eta ukitutako pertsonen eskubideak errespetatuz aplikatuko dira, legozkiekeen eskubide ekonomikoei kalterik egin gabe.

Bosgarrena.—Foru-agindu hau igortzea Osasun Ministerioari, eta Eskubide Sozialetako, Garapen Ekonomikoko, Justiziako eta Migrazio Politiketako, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko eta Osasun departamentuetako idazkaritza nagusi teknikoei.

Seigarrena.—Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 21ean.—Osasuneko kontseilaria, Santos Induráin Orduna.

Nafarroako Aldizkari Ofiziala, Ezkirotz kalea, 20 bis, 31007 Iruña. Telefonoa: 848 42 12 50. Faxe: 848 42 12 40. bon@navarra.es

---

**Argitaratzailea:** Nafarroako Gobernua. Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua. Nafarroako Aldizkari Ofiziala  
**Argitalpen egunak:** astelehenetik ostiralera, Nafarroako Foru Komunitateko jaiegunetan izan ezik  
**Tasak argitaratzeagatik:** Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legearen 35. artikulua

L.G. NA. 102-1990 • ISSN 2253-9654

Nafarroako Aldizkari Ofiziala